DURANGO
Udala • Ayuntamiento
Bulego Teknikoa
Oficina Técnica

**AKTA**

**LURRALDE INFORMAZIO BATZORDEKO OHIKO BILKURA**

**TOKIA:** Udaletxeko bigarren solairuko batzar gela

**DATA:** 2024ko otsailaren 20a

**HASIERA ORDUA:** 17:00

**BUKAERA ORDUA:** 18:00

**ACTA**

**SESIÓN ORDINARIA DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE TERRITORIO**

**LUGAR:** Sala de reuniones de la 2ª planta de la Casa Consistorial

**FECHA:** 20 de febrero de 2024

**HORA DE INICIO:** 17:00

**HORA DE FINALIZACIÓN:** 18:00

**PARTE-HARTZAILEAK/ASISTENTES**:

| | |
|---|---|
| **PRESIDENTEA**<br>PRESIDENTA | • Sara Oceja Salazar (EAJ-PNV) |
| **ZINEGOTZIAK**<br>CONCEJALES | • Mikel Ortega Marañón (EAJ-PNV)<br>• Paule Sanchez Arieta-Araunabeña (EAJ-PNV)<br>• Martin Loizate Sarrionandia (EH Bildu)<br>• Goiuri Aginako Etxenagusia (EH Bildu)<br>• Oihana Estibez Barreña (EH Bildu)<br>• Jose Angel Orbegozo Ercilla, Jesica Ruiz Perezen ordez (ES-SV)<br>• Jorge Varela Dorrio (HE)<br>• Carlos Garcia Fernandez (PP)<br>• Iker Urkiza Quilez (EH Bildu · Entzulea/Oyente) |
| **ARKITEKTOA**<br>ARQUITECTO | • Igor Zorrakin Perez |
| **IDAZKARIA**<br>SECRETARIO | • Ivan Espinosa Perez |

Presidenteak hasiera eman dio bilerari, eta saio honetarako gai-zerrendan jasotako gaiak jorratzen hasi dira. Hauexek dira:

Iniciada la sesión por la Presidenta, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**1.- Bidezkoa balitz, 2024ko urtarrilaren 23ko 1. akta onartzea.**

Onartu egin da.

**1.- Aprobación, si procede, del acta nº 1 de 23 de enero de 2024.**

Queda aprobada.

**2.- Lurralde arloaren kudeaketa txostena eta intereseko gaien berri ematea.**

Igor Zorrakinek txostena aurkeztu du, bertaratutakoak jakinaren gainean geratu dira.

**2.- Informe de gestión del área de Territorio, dación de cuentas y asuntos de interés.**

Presentado el informe por Igor Zorrakin las personas asistentes se dan por enteradas.

**3.- Zarataren aurkako Ekintza Plana.**

Aitor Larruceak Zarataren aurkako Ekintza Plana azaldu du. Bertaratutakoak jakinaren gainean geratu dira.

**3.- Plan de Acción contra el Ruido.**

Aitor Larrucea, expone el Plan de Acción contra el Ruido. Las personas asistentes se dan por enteradas.

**4.- Formakuntza: Bulego Teknikoak kudeatutako diru-laguntzak.**

Igor Zorrakinek Bulego Teknikoak kudeatutako dirulaguntzak azaldu ditu eta batzordeko kideei dokumentua bidaliko die. Bertaratutakoek jakinaren gainean geratu dira.

**4.- Formación: subvenciones gestionadas por la Oficina Técnica.**

Igor Zorrakin explica las subvenciones gestionadas por la Oficina Técnica y remitirá documento a los integrantes de la comisión. Las personas asistentes se dan por enteradas.

**5.- Eskaerak eta itaunak.**

Carlos Garcia (PP): aste honetan hainbat kexa helarazi didate Andra Mariako elizpeko argiteria eskasari buruz, egunez zein gauez. Neurririk hartuko al da?.

Udal arkitektoak erantzun du obra amaitu zenean JAEDeko kaseta jarri zela, argi propioa zuela eta horrek engainatu egiten zuela. Lanak egin dituen enpresa azterketa bat egitera etorri da eta gai horri buruzko iradokizunak bidaliko dizkigu.

Elizpeko argiak argi-sentsorez dabiltza; hau da, kalean dagoen argiaren arabera, argiak pizten dira edo ez. Halaber, piztuta dauden fokuen kopurua berrikusi behar da. Badirudi ez dute behar adina argia ematen, eta aste honetan bertan aztertuko dugu.

Jorge Varela (HE): Euskal Trenbide Sarearekin Trenbidea Barrutik Birgaitzeko Plan Bereziari buruz egindako aurreakordioaren eraikigarritasunei buruzko informazio bidali ahal diguzue? Zein dira BBPB berria egiteko

**5.- Ruegos y preguntas.**

Carlos Garcia (PP): Esta semana me han trasladado varias quejas sobre la deficiente iluminación del pórtico de Santa Maria, tanto de día como de noche. ¿Se va a tomar alguna medida al respecto?.

El arquitecto municipal responde que cuando terminó la obra se instaló la caseta de la JAED, que tenía luz propia y engañaba. La empresa que ha realizado los trabajos se ha acercado a realizar una revisión y nos remitirá sus recomendaciones sobre este tema.

La luz del pórtico funciona con sensor de luz; es decir, según la luz que haya en la calle se encienden o no las luces. Igualmente, hay que revisar el número de focos encendidos. Parece que no están dando la iluminación suficiente y vamos a revisarlo esta misma semana.

Jorge Varela (HE): ¿Nos podéis trasladar información sobre las edificabilidades del preacuerdo con Euskal Trenbide Sarea sobre el Plan Especial de Rehabilitación Interior Ferrocarril? ¿Cuál son los pasos para la

urratsak?

Arkitektoak erantzun du BBPB berriari buruz ari garenean, antolamendu xehakatu berria duten arau subsidiarioren aldaketaz ari garela, planeamenduaren egiturazko aldaketa egin beharko dela (eraikigarritasun-aldaketak), eremu horretako erabilera xehakatuak antolatuz.

Hauek dira eman beharreko urratsak: aldaketa hau egiten hasteko akordioa onartzea, dokumentua idaztea ekarriko duen herritarren partaidetzarako programa onartzea, aurrerapena onartzea, parte hartzeko prozesuari ekitea, iradokizunak jasotzea eta dokumentua idaztea hasierako onespenerako, gero behin-behineko onarpenerako eta behin betirako. Halaber, ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar da.

realización de este nuevo PERI?.

El arquitecto responde que cuando hablamos del nuevo PERI realmente estamos hablando de una modificación de las normas subsidiarias con una nueva ordenación pormenorizada, porque hay que realizar una modificación estructural del planeamiento (cambios de edificabilidades), ordenando los usos pormenorizados de este ámbito.

Los pasos a seguir son: aprobar el acuerdo para el inicio de la formulación de esta modificación, aprobar el programa de participación ciudadana que conllevará la redacción del documento, aprobar el avance, iniciar el proceso de participación, recoger sugerencias y redactar el documento para la aprobación inicial, luego provisional y definitiva. Igualmente, hay que elaborar la evaluación ambiental estratégica.

Deialdiko gai zerrenda amaitu ondoren, presidenteak bukatutzat eman du bilkura. Akta hau idatzi da eta nik, idazkariak, fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Presidente da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario doy fe.